



XVII. JOKIN ORMAETXEA MARTITTEKO IGOERA

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
2. Informazio gehigarria	3
3. Izen ematea eta dortsal banaketa	4
4. Kontsignak eta duxak.....	5
5. Amaierako anoa gunea	5
6. Osasun zerbitzua	5
7. Sariak.....	5
8. Bolondres eta kontaktuak.....	5

1. Aurkezpena

Martitteko igoera hamazazpi urtez antolatu du Jokin Ormaetxea Txirrindulari Elkarteak. Orain arte, Andramari festak aprobetxatuz, abuztuan egin izan dugu. Aurten, jende gehiago erakartzeko asmoz, dataz aldatzea pentsatu dugu eta uztailaren 5ean izango da. Horrez gain, aurten lehenengo aldiz korrikako modalitatea gehitu diogu eta beraz, bi lasterketa eskeiniko dira, korrika eta bizikleta. Partaideek bi modalitateetan parte hartu ahal izango dute baina modalitate batean soilik parte hartzea ere posible izango da.

2. Informazio gehigarria

Proba Azkoitiko "Txalon erreka" auzoan hasiko da eta Martitte auzoan amaituko da. Bi puntuen arteko distantzia 3,7 kilometrokoa da eta desnibela 302 metrokoa (%8,4ko batazbesteko malda). Bidea asfaltatuta eta egoera onean dago eta 5 metroko zabalera du gutxi gorabehera. Lasterketaren bide osoa maldan gora izango da eta bidegurutze batzuk daude; guztiak, bolondresekin babestuta egongo dira.

Lasterkarien eta herritarren segurtasuna bermatzeko, lasterketaren aurretik udaltzaingoa joango da bidea itxiz; tartean, bolondresak igoko dira motoetan eta azken partaidearen atzetik anbulantzia igoko da.




KORRIKAKO PROBA	
Irteera ordua	10:00
Distantzia	3,7 km
Gehienezko partaide kopurua	150 partaide

BIZIKLETAKO PROBA	
Irteera ordua	11:15
Distantzia	3,7km
Gehienezko partaide kopurua	150 partaide

3. Izen ematea eta dortsal banaketa

Izen ematea www.herrikrosa.eus webgunean egingo da apirilaren 1etik aurrera. Proba bakoitzaren prezioa 10€-koa izango da eta dortsalak egunean bertan banatuko dira herriko plazan. Bi ordutegi egongo dira dortsalak jasotzeko; korrikako lasterkarientzat 8:30etatik 9:40ra eta txirrindularientzat 8:30etatik 10:45ra.

Egunean bertan izena emateko aukera egongo da www.herrikrosa.eus webgunean lasterketa hasi baino 30 miñutu lehenagorarte 15€-ko kostuarekin.



4. Kontsignak eta dutxak

Motxilak gordetzeko aukera egongo da irteera gunean, eta jasotzeko berriz, Martitte auzoan.

Korrika igotzen den jendearentzat, Azkoitira jaisteko garraio zerbitzua egongo da.

Dutxak Azkoitiko kiroldegian egongo dira 11:00etatik 13:00etara.

5. Amaierako anoa gunea

Probak amaitu ondoren, parte-hartzaile guztientzat hamaiketakoa eskeiniko da Martitteko auzoan.

6. Osasun zerbitzua

Anbulantzia bat egongo da. Bi sorosle anbulantzia barruan egongo dira eta bat Martitteko plazan. Bi probetan azken partaidearen atzetik igoko da anbulantzia.

7. Sariak

Sariak 12:00etan banatuko dira Martitteko plazan.

	1º		2º		3º	
	Neska	Mutil	Neska	Mutil	Neska	Mutil
Bizikleta Absolutoa	Garaikurra + txapela		Garaikurra		Garaikurra	
Korrika Absolutoa	Garaikurra + txapela		Garaikurra		Garaikurra	